

JÜSEF EGIATEGIREN TROPOAK

Txomin PEILLEN

Gure filosofoak testu asko itzuli edo egokitu dituela argi dago, beraz Europako hizkuntza guztietan aurki genitzakeen irudiak darabiltza. Ez du esaten aipamenak zehazki nondik hartu dituen; beharbada jadanik idatzitako esku liburuak erabili zizukeen. Europar hizkuntzetan badakigu denek erromatar, greka, eta ekialdeko literaturetarik irudiak hartu dituztela, baita nola ez Bibliatik. Gainera Jüsef Egiategik Biblia aipatzen du baita maiz San Agustin.

Gehienetan, ikusiko dugunez konparaketak nagusi dira. Baina sar gaitezen Egiategiren basa oihanean. Halere bideak seinlatu ditut eta gaiak sailkatu: *animaliak* (Ehizak, piztiak, abereak, zomorroak); lau elementuak, *sua eta argia* (eguzkia, garra, izarrak, tximistak) Ikerlan hau Euskaltzaindiko argitalpen bakarrean oinarrituko naiz; *ura* (iturria, ibaia, itsasoa, euria), *baizea, lurra* (harkaitza, lurra, lohia, meak); *gauzak, tresnak*.

TROPO METATZEA

Gure idazlearen kasuan nabarmenena izanen da nola ideia baten azaltzeko tropoak metatzen dituen. Ondotik heldu dira hiru arka animaliez betetzen hasiak:

Hügüngoaz (225.o.) (Auziez) ...**arrano**aren aztaparrek, **balen**aren tripak, **basa arimalen** ozarak ta **sügearen** khozüak (pozoiak) hüskaldünetan bara ‘erazi e’lirokien.

Abalkea (lotsa) (262.o.) Galdü dianak... halako gizonari honki zekeio, **igel beltzaren** begiak, ... **sagüaren** zankhoak. Lagün dütüke bizio güziak lükien **krokodilioa** zaldüntzat.

Hontarzünaz (266.o.) Bihotz gogorre...Izariak dereie eman **rhi-nozerosaren** adarra, **hartzaren** aztaparra, **lehonaren** ahoa, **tigrearen** haginak zathizka ta jan dezen, gizonak **basa arimaleen** arima dio eta hanitzez basago dirade.

Hona beste adibide luzea suaren inguruko metafora ta konparaketaz dabilana

Gizonaren biziaz.(189.o.) Bizia lüzatü nahiz aharena ari girade güzietaz errekeitzan, osagarria ardüra ere hetzaz dügü labürtzen. Vestalen **süiari** atitxatzen bethi bizi zenari, ezta gure khorpütza pare, hartan, abentüak **üda hozten** ta **negüak kharrustatzen**, urteek ere dereie **süiari** emeki emeki **hur hotz** ixurten, lehenik **garra** gero ilhintiak, azkenekoz **inkhatzak** itzalten, hiltzen dereitzona; **sü** hau ezta errekeitüz arrapitz daitekeana. **Alpor** bereaz bizi zeno zen ganargi ta flakatzen zeno, zokorri zeroio eman, bena lehen bezala ezta destieraziren beraren **alporraz** baizik eztüalako alporrik; **sü** gabeak ere dü bizia atzenkidatzezn, khorpütza abartzen , ximaltzen eta nekatzen.

Ondoko adibidean konparaketa eta metafora desberdinak metatzen dira

Berthüdeaz (40.o.) Nork bere gaitzkorriak ükhen eztütü! Erregetarik baratariadrano zorthü gaitza **hegoaren** pare laketago da oilhanetan **zühaiñen** (zuhaitzen) porrokatzen eziez **khaparren** (sasien) azotatzen; orozbat dütüalarik jende txipiak mespretxatzen dütü handiak **erroetarik zotükatzen** ta lürreratzen, hala ere non eta zaiñak beitrade azkarrago dütü **astindiak** üsüago. Aitoren semea poterez arrrimatüak dütüke orozbat bere **inharraus** 'khaldiak, zelüa khexitürik dereio (sic) garrak egoisten ta düründaz bere thorrea **khordokatzen**, baliuma ere eroreraziten, bere fama **lanhoz** üngüratürik, isterbegiez **thonatürik**.

Adibideak, etsenpluak

Aita amen eginbideaz

Pelikanoak txistatzen dü, ümen, bere bulharra bere odoletik hümeer emaiteko

Arranoak eta berze txori güziak dütie bazkatzen daudeno korokan edo eri habian.

Herioaz

(Fortunaren gorabeherak) Gaüza hek dirade mündüko **pastoralak**: eztireia komedianten halakoak errege ta trükader izanik beren galtza motxetara ta Lürretara ethortzen ta errege zena atzo herrestan egün gertzen.

Ausartzeaz

Haurzarotik ere arima zereitsee azkartzen. Indietan ümen da herri bat non **arranoak** beno hanitzez **belatxak** handiago beitarade ta mantsotzen diradeanak; heetan gaiñen haurrak konkaitüz dütüe ezarten ta arimalak hegaltaeraziten dütie; lehen aldian marrakaz daude haurrak, geroztik berak dirade arimaler jauzten ta odeietara iganeraziten, hala peligro güzietara berak dirade atrebitzen.

Ausartzeaz.

Ezta berthüderik ausartzeak bezainbeste gizonari ohore egiten dereioanik, eragos güziak dütü garhaitzen, peligro güziak apartatzen, **botxüen** bazterretan ta **khaparren** artean arrosak dütü biltzen haren begien aitzineala sekülan oldekiak eztirade agertzen.

CORPUS

Ehizak eta beste animaliak

Arranoa

Baloreaz (49.o.) (Gizon bihoztoiaren) ..haren balorea **arranoaren** pare dütü odeiak zilhatzen.

Irritsaz (94.o.) Dügün har hegaltan nahi bezain gora **arranogei** sorthü ezkielakoz falta erorteala ezteikü eginen.

Aita amen eginbideaz (119.o.) **Arranoak** bizkarrean dütü hümeak jarten hegaltan diradiano azkartü.

Aita amen eginbideaz (123.o.) ..**arranoak** eta berze txori güziek dütie bazkatzen daudeno korokan edo eri habian.

Gorrotoa: hügüna (225.o.) (auzilariak)....**arranoaren** aztaparrak.

Hegaztiak, txoriak, hegalak

(*Esterratziaz*) (47.o.) ..ta mündüa da hain borthizki halakatü non gizon xüxenak direlako **zozo xuriak** bezain bekant.

Baloreaz (49.o.). (Gizona)...behar bezalako denean, **hegaltaz** gaitzürü dütü erdiratzen.

Irritsaz (62.o.) (Kortean ez ibiliz)... aldiz bere honki eginetzaz libro famak bere **hegaletan** ekhar.

(*Izterbegia*) (83.o.). ..; bethi **hüntza** bezala bere zilhoan egonez bere aurrhideen zorthü honaren argiari so egon.

Izterbegia (89.o.) ... **boilturari** pare arakei hirotian (ustelean) bethi enjogi.

Aita amen eginbideaz (119.o.). **Pelikanoak** txistatzen dü (ümen) bere buharra bere odoletik hümeer emaiteko.

Axolgabeaz (149.à.) dela lana gizonari, den bezala txoriari **hegalta**.

Amorioaz (205.o.). Amorosa **hegaltaz** dabila txoria bezala xederen üngürünetan otorgatü badü nahi züana.

Hügüngoaz(222.o.). Berze (jende) suerte bat bada, **gaüeko txori** berri gaitz ekarleer üdüri dirade deadar heriotsüaz dielarik pausüan inbeditzen.

Hügüngoaz (223). **Txitxak** eztü zaldiaren lotsarik bena **miruaren** edo **esparberaren**; hegaltan laister doa amaren hegalpetan.

Esperantzaz (243.o.). **Txoriak** hegaltatik dutü bere indarra erakhusten ta ahal deno gorago ezta igaiten, gizona da ezin beno gorago igain nahi dena ta sekülan handitü nahari bere llabürtarzüna zehatü (neurtu) eztüana..

Esperantzaz.(245.o.). **Hegaltaz** dabila zonbaitentzat ta plomüz dütü zankoak berzerentako.

Suge

Irritsaz (62.o.) (Kortean)... ezi kamerzain bateki beütüke ezagützea egin ehün **süge** dütüke irentsi.

Izterbegiak (88.o.) Gorgonen begiak , **sügeen** hüstiek ta **bazilikaren** soak eztirade pare khortezainen errabiaren, bere etsaia faborearen hegaletan däunean ikhusten.

Ezkontza (107.o.) Da Arabiako **bipera** txipiak dietetan habiak egiten, hartara doanak zer dagoen pean eztakigularik daude ausirik.

Aita amen eginbideaz (223.o.) **sügeak** süiala da jauzten arrautzak urthik badereitze hartara.

Hügüngoaz, gorrotoa (225.o.) **sügearen** khozüak hüskaldünetan bara erazi elirokiena.

Auberkeriaz (222.o.) Berze (jende suerte bat bada heetan **sügearen** **mihiarekin** sortzen dena.

Hügüngoaz (gorrotoaz)(223.o.) Arimaren grinaldi güzietarik hügüna da hotzena, äidurena ta kaltekorrena, **sügearen** arrautzeak bethi korokatzen ari da, **khozüa** (pozoia) barreia ahal dezan bazter güzietarat.

Piztiak , animaliak

Hitzaurrean . (26.o.) (Euskara mordoilloaz) Hitzauri txar bat orhatürük **tximinoek** mintzazale baleude e'lükiena nahi.

Baloreaz (49.o.) (Gizon kementsuaz) ... **Lehon**, berze arimal güziak garhaitzen dütianaren pare.

Baloreaz (49.o.) (Ohorezko desafioak)...bena bere adiskidearen edo heritarrenez bada, бүрүzagiok zer ohore düke: **basa animal** odolgiroak bere lagüna erho diana. Sortzepena ahatzerik Erromako ezpataren pare jarririik plaza ostandikian doa bere trebandiaren erakhustera ta Españako **zezen laisterkarien** ofizioaren egitera.

Irritsaz (61.o.) (Kortean) **otsoaren** beharritik **alanoak** bezala azkenekoz dü zathia eta arimala bada ezkapatzen.

Igoriaz, hügüngoaz (87.o.) Hügünak beregana mündü güzia atheratzen diano dü ithotzen eta **otsoaren** pare saldoaren erdian jarten.

(*Irritsaz*) (101.o.) Bihotza **onzaren** larrüaren pare.

Auberkeriaz (alferkeriaz)(119.o) **otsoen** pare ohoinkeriaz baizik ezta bizi.

Ezkontzaz (115.o.) hartakotz bortxatzea ezta odolgarriago eziez zaküan bi **gathü etsai** ezartea.

Aita amen eginbideaz (119.o.) **Basa arimalien** sordeiz aitak hala dielako beren hümeak bazkatzen eta dakiena irakasten.

Haurren eginbideaz (127.o.) orozbat **lehona** eri edo zahartü denean dabilta hümeak harentzat bazka buzkatzen.

Mendekatzeaz (136.o.) Gizonaren bizitzea da **otso** errabiatüaren pare; ordüan legeak ezpataren püntan dagotze ta gizona bata berzeari **otso**.

Mendekatzeaz (137.o.) **Lehon** edo **katamotz** bahiz dio Gizon Santiak erhoezak hire etsaia ta jan ezok bihotza, tximalerazi emaztearena, ta haurrak jar eskale, direlarik güziak ogen gabe.

Hügüngoaz (224.o.) Handik **otso gizonak** bezala nahi dügü gure pare dena hügüntü.

Tristeziatz (237.o.) Eztaitelakoz lürrean **arimalik** plazerez gizona beno khoiago.

Zomorroak

Esterratziaz (77.o.) (iruzur egilez) ..khaparrak (sasiak) argitzen dütien **arbisker** ta **har** txarrak diradeanak.

Denbora galdüaz (81.o.) (Alegia kutsua) **Armiarma** ta **zeta harraren** elesta.

Denbora galdüaz (82.o.) Alabadere auherrak (alferrak) hirietan dabilta **ünhurriak** beren habian beno üsüago.

(Izterbegiaz (88.o.) üdüri dü **taon eulliar** **abereari** egin düan kikan hiltzen dena.

Amorioaz (205;o.) Izariazko amodioa **khalamü harra** bezala bere ürrixarekilan bürdüina atxeriarekin (altzairuarekin) ere.

(Esperantzaz) (243.o.) esperantzak dütü **ünhürriren** pare ibileraziten bakhoizki gizon gazteak gaüza igaranetzaz deusere eztakienak.

Abereak eta beste

Berthüdeaz (39.o.) **arrain handiaren** küsküülüan sarthü denean aizez dü bethatzen.

Irritsaz (63.o.) bena so egiten bada gaüzer, üdüri da gizonetik gizonaala banaitia dela handiago, eziez gizonetik **abereala**.

Aita amen eginbideaz(119.o.) **axuriak** bere amatik düana ehünen artean berea ezagütüren.

Aitamen eginbideaz (121.o.) **ardier** da emaiten artzain perestüa halaber ülhaina ta haurren ofizioan hitzik eztakian haurtzaina ardüra hala dirade haurrak **arresak** bezala errekeitüan **otsoari** ematen.

Esterratzeeaz (129.o.) halakoak ... **karakoilaren** ta **sagarroiaren** pare bere-tan gordatzen direnak hüillantzen zereitzener.

Axolgabeaz (150.o.) **üztarrria** dügü güziek lephoan sortze penetik herio-ladrano, txipiek gorotzean, handiek beren jargia ürreztatüetan.

Herioaz (165.o.) (jendeen mugimendua) **txipak** bezala gora behera (h)errekan.

Gorputza eta osasuna

Irritsaz (61.o.) Handi izan nahia da aitoren semearen **eritarzün** sor-thizkaia ta nahiari halaz ez neurtuz edo ez izartüz, haren galtzepena.

Irritsaz (62.o.) Ezker beltza aldiz hainbeste **plaga** zelütik lürreala jinerazi dütüana dago orain Kortean osorik.

Irritsaz (62.o.) Eztiradeala khortezainak gizon **biziak** bena bizirik ehortziak, jeloskeriak dütüalakoz egünkal **erhaiten**.

Aitüretzaz (73.o.) Berritarzünaren **hazkerinak** bethi hazkatzen dütüe-nak.

Izterbegiak (88.o.) ... karrartzazüna **bihotzean** aztaparra bürdüntsüak bethi **erraietan**.

.. **bihotza** tximaltürik.

Irritsaz eta Zekinantziaz (94.o.) ... Kainen bizitzea dükeala **besarkatü**.

(...) gartsü, punalak **bihotzeala** jauzten zereitzolarik.

Ezkontzaz. (108.o.) (Bortzazko ezkontzaz) San Agustinek dereiküna erraiten haren denboran ohoin kasta bat zela jende **biziak** hiler estekatürik **hileraziten** zütiela, gosez, egarriaz ta urrin gaitzak nekatürik, halako da sen-harren edo emazteen bizitzea erran dügün kasüan diradenean.

Mendekatzeaz (137.o.) ..errabia urdailean...(..) zer bihotz dereiozü Jinkoari eskentzen **beazünez** betherik dena.

Herioaz (184.o.) Khorpitz delakoz arimaren egongia han ezta laket ezteno **sanoki** ta ozenki ta ez khorpitz bethi **eri** bada, dagoelarik arranku-ran dago presontegian.

(...) Aithortü behar dügü bizi gireno mündüan gizonen khorpitzak hainbeste **min** ta **eritarzün** dütiela... non ezpeita mündüan arimalik gizonaren sordeitz denik.

Amorioaz (205.o.) ..esperantza güziak **besarkatzen**.

Hügüngoaz: Halako dirade gorrotoaz (224.o.) bihotz haboroenak **zauri** harez hirotürük (usteldurik) daudeanak.

Hügüngoaz (224. o.) (Gorrotoak) **bürühüna** jaten.

Lotsa (251.o.) Jinkoak nahi düan bezainbeste **besarkatü** gaüza dütüala eginen.

Odola

Ezkontzaz (115.o.) hartakoz bortxatzea ezta **odolgarriago** eziez zakün bi gathü etsai ezartea.

Aita amen eginbideaz (122.o.) **odoletik** die aita amen üdüri izaitez egarría.

Haurren eginbideaz (130.o.) barka zerbait gaztetarzüinari **odol biziaren** boilltari.

Mendekatzeaz (138.o.) Abelen **odola** herakiten deno lürrean.

Ongondiaz (143.o.) **Odolean** laket diradeanak dirade arima apalak **lohiaren** pare diradeanak.

Ongondiaz (143.o.) Theophila lürrak ekharri düan enberadore **odolgarriena**.

Egarría

Hitzaurrean (25.o.) ütsüer ikhusi **egarrían**.

Berthüdeaz (37.o.) Irritsaren **egarriak** jende güziak abereak bezala eztütüalarik üztartzen.

Nekeziaz (49.o.) ürrhezko kopa da khozüa **edaneraziten** düana.

Erokería handigorik badeia eziez mündüaren laisterra baratü nahiaren **egarría**.

Gerthaldien indartazünaz (69.o.) bethi harzale... pützü bat betha eztaithekeana dü **egarría**, deuserez itho e'laitekeana.

Aitüretzaz (73.o.) (Egonezina) jingeiaren **egarriaz** ererrik.

Axolgabeaz (150.o.) Bere **egarri** güzier beha dagoena eritarzün lüzearen errekeitüari da jarten.

Hilen bitzaeraz (184.o.) korpützaren bethiereko **egarría**.

Izterbegiak (89.o.) noiz den berzea beno handiago edo aberatsago izaiterean **egarriaz** nekatüren?

Irritsaz (93.o.) Handitarzünaren eta aberastarzünaren egarria mündüan jenderen erdia dü nahasten.

Hilen bitzaeraz (184.o.) (Arima) Khorpützari algartü nahiz **egarrian** baitago.

Aita amen eginbideaz (122.o.) aita amen üdüri izatez **egarria**.

(..) bena biltze **egarria** jinez geroz.

Amorioaz (207.o.) ükhen nahiak dereioanak (ematen diona) **egarria**.

Janariak

Nekeziaz (46.o.) Jaun aberatsak züen palazioetan arraina bezala hur gize-
nean jaten düzüe berzek erein **ogia**.

Irritsaz (62.o.) Ezagützea delakoz **esnez** eta **eztiz** egina Khortetan ez da
laket. Esker beltzak aldiz.

Gerthaldien indartarzünaz (Jeloskeriaren ontzian) zointan ezpeita
oliorik ez eta intsentsürük isurten. (68.o.).

Axolgabeaz (150.o.) Gizona aldiz gorgonen pare hirur **tzüntzür** harek
bezala, hirurer nahi lüke batean **ireintsarazi** ta bata ezina bazereitzo thapatzen
laister doa mediketara zabaleraziteko.

Egiaz (195.o.) Gezürak düalakoze **eztia** lagün gogo honez dügü **ireisten**
bena egia delakoz **latz** nekez dügu nahi ezagütü ta harez lotsa zistatzen düanean.

Alferkeriaz (200.o.) Ohoinkeria demendrena da arimaren **olio txorta**
ilhezkoan doana bethi hedatzen.

Landareak

Gerthaldien indartarzünaz (67.o.) Fier dago tinko **üntza** bezala thorreari.

Gerthaldien indartarzünaz (68.o.) legeak **erroetarik** atheratzen.

Denbora galdüaz (82.o.) Aberastarzün güziak dirade **lasto**.

Irritsaz eta Zekinantziaz (99.o.) Dügün orai sokhakdi bat handitarzünari
jende athearen (metaren) behatzea galtho erokier arrapostü ematea, egitekoa
elhorriz jauzien thipiltzea bakantzea).

Ezkontzaz (107.o.) Hantik orai izkontzia(sic) **elhorri** adarraren pare, ez jakin nontik hari loth alde güzietarik düalako txistatzen.

Ezkontzaz (107.o.) Jonasen **untza** da kanpotik berde ta hotz ageri, barnetik aldiz mengoaren harrek dereio **zaiñak** abartzen.

Aita amen eginbideaz (119.o.) (Haurrak) **fruitü** güziek die hazkürria ta gozoa hontü (heldu) diradenean beren **zühaiñetarik** (zuhaitzetarik).

Aita amen eginbideaz (122.o.) (Bi urthetako haurra, **liliaren** pare lanthan dago zabaltzen deno, harrek zauritzen badie obena düke bizi deno.

Haurren eginbideaz (128.o.) Harrigarri da ikhustez jende batzü lürretik **oinddo** bezala sorthüak, sorthü dien harez zerbaitetara heldürük ohart ezti-radean beren sortzepenaz.

Herioaz (165.o.) erradazü othoi nolako lizatekean lürra bezain zahar lizatekean gizona.... ta **haritz süharra** bezala zathizka eror laitekenean? Auher lizatelealako halakoa Izairiak dü khentzen ta berze bat haren lekhüan jarten, **lanthatzen** den bezala **haritz** gaztea, zaharra zen eretzean , ezi mündüa balitz jende zaharrez betherik hain hügügarri lizate nola oihana **haritz idorrez** baizik ezpaliz lanthatürük.

Hügüngoaz (223.o.) bena hügüna zahartzearekilan **zainak** dütü barnago lanthatzen, athera eztereitekeanak.

Hügüngoaz (gorrotoaz) (225.o.) Auzi baten **azia**.

Argia eta argizaleak: izarrak, eguzkia (Ekia), tximista, sua.

Berthüdeaz (37.o.). Jinkoak bihotza egin dereit **zelüa** bezain zabal.

Ukha e'laite aitoren seme egiazkoaren ta langileen artean ageri dela lürrean ber banaitia **izarren** eta **oliten** artean.

Haurren hezkuntzaz (56.o.) Ezina da odolai ardoilla bürdünari dena, hezkuntzak nazaroari dena ta **ekhia** lantha güzier dena.

Gerthaldien indartarzünaz (67.o.) Jendeak dü jaun handier so egiten ta hetarik hartzen gaitzak ezi ez eta honak. **Izar** thürbütsüek die ülhüna den, ageriak dian bezala lürra argitzen.

Aitüretzaz (74.o.) Khortezalea **ekiko orlunda** bezala doa haren ibiltea.

Izterbegiak (87.o.) Ezta **itzalik** eztenean **argirik** ezetare Jinkoaren dohainik bere izterbegia ezüanik.

Irritsaz (93.o.) Eskü batez nahi lüke sortaldea berzeaz sorthaitza jakin non den **ekhia** jaikiten ta non ohatzen.

Haurren eginbideaz aita amen... (127.o.) Izariaren legetan dago ezi düan bezala **argiak ekhia** aitzinatzen ta jarraikiten.

Hilen bitzaeraz (185.o.) (Edertasunaren maitatzea) **Ekhia** bezala bortharik ezetare leihorik hautse bagetarik ta arrapatzen düalarik bihotza.

Amodioaz (211.o.) Bihotzgintza da amorioaren **txi(li)mista**.

Gizonen eta emazteen arteko adiskidegoaz (217.o.) Bena dügün aithor halako gorabeherak adiskidegoan erakhusten derekiela adiskidegoa itsusi bat ta ederra, **ekhia** bezala bere gradoan doala. Nahi lükienak **ekhiak odeiak** e'lükian dio emaztearen adiskidegoa **ostadarraren** pare dela.

Esperantzaz(244.o.) (Ikaro gogoan) nozpaiteko hegaltariaren pare **ekhiak** hegaleko ezkoa urtürik da sekülaokoz eroriren.

Sua

Hitzaurrean (Burdin arotzaren irudia) Berze mintzoeak bezala hüskaldü-nen ünkhüdean izenak **arozta** litiro (25.o.).

Denbora galdüaz (82.o.) Halako izpiritua **garraren** pare zenak ezpade-reitzü azaltü denbora.

Denbora galdüaz (82.o.) (Denboraren bereskuratzea) ... haren küperatzea elaita ... **garraren** pezatzea.

Izterbegiaz (87.o.) Han dago **sü** bat argirik eztüana... **gar** bat bethi erratzen dena..eta sekülan **hautsik** egiten eztüana.

Irritsaz (93.o.) **sü** erbarratzatüa.

Irritsa ta zekinantzia (94.o.) Zer dirade bi bizio hetara larrütü diradeanak, **sükarra** bihotzean, beroak ezetare hotzak pausürik eztereienak, alkhantzatzen badüe opatü nahi züena, zorthü hon batetik bigerreneala igaranbik daude **errerik**.

Irritsaz (101.o.) bihotzean ber denbora **süia** eta kharrua.

Ezkontzaz (108.o.) Erradazü **süia** ta hura batzen diradenean gizon zühü-rra erhoarekilan edo emazte perestüa gizon gaistoareki.

Ongondiaz (143.o.) (Theophila enperadorea) Bere arima beltza gizon otsoaren pare züana infernükö **süiala** egorririk.

Amodioaz (205.o.) Mündükö **süiaren** buhadera (auspoa) dela.

Orozbat ari da (amodioa olagizon?) mündüan bihotzak arrapatzen lü-rraz edo morteroz eztiradeana bere **sü** maitagarriak dütü antsiaren eta erran-

pearen **martellüaz** joiten probarentzat otoitzen jarraikiaz dütü **limatzen**, berthüdeaz dütü leüntzen.

Lotsa(beldurra) (249.o.) süia gure faltaz ardüra eskeletzen gütianä.

Kharrua (horma, leia)

Izterbegiak (88.o.) arimak **karrustatürrik**.

Irritsaz (93.o.) bihotzean ber denboran süia eta **kharrua**.

Haizea

Berthüdeaz. (40.o.) Zortü gaitza **hegoaren** pare laketago da oihanetan zühainen (arbolen) porrokatzen eziez kaparren azotatzen.

Gerthaldien indartarzünaz (67.o.) Jaun aitoren semeak, züen **aizeak** dütü goratzen eta beheratzen jendearen itsaso bagak.

Denbora galdüaz (82.o.) Haren küperatzea elizate **aizearen** uhatzea.

Irritsaz (93.o.) **aize** bat zeha ezatekeana. (...) jendea irrirtsaren **aizeaz** irrirtsaren thiniala (gailurrera) bulkatürrik, lezeala erorteko baizik.

Irritsaz (94.o.) Bihotza sobera **hantü** deno zapartatüren següro.

Adiskidegoaz. (212.o.) Handik dirade mündü güziaren balakariak, üsü delarik heen bihotza zeinütegiko oillararen pare **aize güzier** ützültzen dena.

Gizonen eta emazteen adiskidegoaz (217.o.) nahi ta ezaxola batetan, heek güziak dereiela **aizeak** zühain (arbola) ostoak bezala odola azotatzen.

Ura (iturri, ibai, itsaso, uharte, euri, ekaitz, harri, laino, hodei)

Bethüdeaz (37.o.). (Kortean) **Itxasoan** bezala ontziak barara ustez heldü porrokatzen osoki.

Berthüdeaz (39.o.) Erosenez handitü dena da **itxaso** ostraren pare, arrain handiaren küsküllan sarthü denean bere aizeaz dü bethatzen bena dago hanitzez txipiago han agertzen.

Berthüdeaz. (39.o.) Arima handia aldiz zer nahi hel dakion bethi zorthü hona beno gorago dago, **thenpestari**,zürründari, harriari, ekaitz lotsagarriener dago botxüa bezala tieso.

Baloreaz (49.o.) Arroka **itxasoaren ühin** gahüntsüak jin zereitzon beno laisterrago urthikitzen dütianana.

Irritsaz (61.o.) (Kortean) Alabadere doa khorteala ta **itxaso** hartan marinera bezala itxasorratz bagerik dabila.

Aitiüretzaz (73.o.) (gizon egonezinaren izpiritua) Mugida bethierekoan delarik, dabila **itxasoaren** pare , gorabeheretan delarik ez eta bazterrik.

Izterbegiaz (87.o.) (Izterbegiek) Ukhen eztiroana eztü nahi berzek dien. **Uhaitzak, (h)errekak, üthürri** güziak agort litiro ahal baleza inhurek edan e'lezan ta jendea egarri hil dadin.

Ezkontzeaz (107.o.) Izkontzea (sic)da noizpaiko ametsen **isla edo ügartea** non han ageri beitziradean gaüza ederrenak ta kapa erori zenean gaüza harrigarriak zereitzoen ageri: dü **itxaso** khexüaren üdüria, **thenbestaren**, azoteaz mendiak bezain gora düanean **bagak** urthukitzen , **txilimistak**, düründotsez eta **ekaitzez** bazter güziak ikharareraziten , **ühaizterrak** ontzi zatikaz estaltzen ta heiagoraz airea bethatzen. Gütik **baia** següriala dirade bideatze hartara heltzen diradeanak.

Haurren eginbideaz (127.o.) **odeiek itxasoan** hura hürrupatzen ta lü-rrala isurten

Haurren eginbideaz (127.o.) Ibarretik **üthürri** begiala bezala igaiten den arraiña, orozbat doa aita amen haurren amorioa hori Izariaren legeetan dago.

Haurren eginbideaz (128.o.) Harrigarriago oraino aita amak porrokatü eta pikarraitü(bilustu) diradenean beren haurrak **odeietara** igaineraziteko

Ongondiaz (150.o.) Thenpesten artean taula baten gañean **itxasoak** igaraitean meskabüarik bage edu mündüan min gabetarik (sic) bizitzen dirade berdin.

Egokideaz (157.o.) Txipienetan megopia (izpiritu) hertsiek die **(h)errekak** botxüetarik erorten diradienean azalia egiten, handietan aldiz zorthü gaitzetan ta meskabüetan doa gogamena **ühaitz handian, ur laisterraren** pare.

Hilen bitzaeraz (184.o.) Heraklite filosofoak dio thipilki sortzepenena dela **ühaitz** (ibai) agortzen zenaren pare.

Gizonaren biziiaz (190.o.) Jende apala doa ilherriala **hur goterak** bezala **itxasoala..** mündüan balirade gizon bakhoitzak bezala.

Egiaz (195.o.) Egia bezain gorderik ta ezezagütürik mündüan ezta gauzarik, Demokritak egia baizik bizian erran etzüanak zion haren altharea **lainoz** ta **odeiez** estalirik zagoela.

Adiskidegoaz (212.o.) Bena heen balakak ta hitz emanak euriaren **hur istiletan** küsküülüaren pare dirade. (...) amorosak **itxasoko** baiak bezala bere aizetzaz gaüez ta egünez bordokatzen.

Hügüngoaz (223.o.) Ber **üthürbegitik** jalkitzen delarik laur bide dütü jarraitzen.

Hontarzünaz (266.o.) Bada jende **itxasoari** pare bere izairiaz ezta **gazi**, ekhiak lürretik hürrüpatzen dütüanean **baporrek** isurten dereitzenetzaz dereio gaina gazitzen eta düan kolore berdea emaiten, orozbat jende latza kanpotik ageri diradianean barnetik dirade ezti.

Lurra (harkaitz, lur, lohi, meatz)

Hitzaurrean (25.o.) Hüskaratik lankei honik sorth'eztaitekeala. Sinheste hori sorthü eta gogortü, bena izanik ere **botxüa** (harkaitza) beno gogorrigo mardotüko dügüla düt sinhesten.

Berthüdeaz (39.o.) Ekaitz lotsagarriener dago **botxüa** bezala tieso.

Baloreaz (49.o.) **Arroka** itxasoaren ühin gahüntsüak jin zereitzon beno laisterrago urthukitzen dütüana.

Irritsaz (62.o.) Han (khortezainak) ühaitz **harriak** beno gogorrigo dirade.

Aitüretzaz (73.o.) (egon ezinak).. hanitz dirade **zilhar biziz** bürüa betherik.

Esterratzeaz (iruzuregileaz) (77.o.) üdüri da etxe hanitzer **latsünak** xuri agerteraziten dütiena ürrhünetik ta **lohiz** direnak.

Ongondiaz (143.o.) Odolean laket diradeanak dirade arima apalak **lohiaren** pare.

Irritsaz (217.o.) (Khorteaz) **botxü** tinian dagoela jarririk ta **lezez** üngüratürik.

Egokideaz, pazientziatz, (157.o.) ... txipienetan izpiritu hertsiek die **(h)errekak botxüetarik** erorten diradenean.

Egokideaz, (162.o.) Mündüa doa itxasoaren pare dütiano bagak **botxüala** porrokatzera igorraiten (...) Izairiak gütü herioari, gure gora beheren **botxüa** denari igorraiten..eta gük akabailla ezin sinhets heltüren dela.

Ongondiaz (143.o.) Theophila **lürrak** ekharri züan enberadore odolgarriena.

Herioaz (165.o.) (eta lurraren adinaz) Erradazü othoi nola lizatekean **lürra** bezain zahar lizatekean gizona, bost mila urthe bizkarrean.

Hilen bitzaeraz (184.o.) Izaria dagoela mündüan langilea bezala bere botikan **büztantzü lürrarekin** (buztin lürrarekin) düanak egiten, nahi düana.

Gizonen eta emazttek arteko adiskidegoa. (217.o.) bena hanitz andere dirade **botxüa** bezain gogor herioladrano beren adiskide gogamenetan.

Tristeziatz (231.o.) ardoilla düan bezala **bürdüina** jaten.

Bidea, zubia, leizea

Berthüdeaz (49.o.) Ordüan zilharrezko **zübia** da **lezeala** züzen doana.

Haurren azkontzeaz (58.o.) Lagün zühür bat ezpadereitze, **bideskak** erakhusten, lezeala xüxen doatza: larrütüren (amilduko) dira.

Izterbegiaz (89.o.) kharidadearen **bideskak** hartüren.

Irritsaz (102.o.) (Khortek) **...bideskarik** eztüalakoze dela neke harat heltzea; ürrhez düala bortha ta barnea izigarri eder.

Irritsaz (93.o.) **Leze** bat ondorik eztüana.

Gizonaren biziatz (191.o.) **Zürübü** bat baizik berze biziata igaraiteko eztüen egiten, igaite hartara hanitz urthez adelatürük.

Gauzak eta lanak

Hitzaurrean (25.o.) Beren izaeratik hüskaldünen **ünküdean** izenak **arozta** litiro.

Hitzaurrea (26.o.) hitzauri txar bat **orhatürük**.

Irritsaz (61.o.) Sobera ordüz bürüzagitü bada balaketzaz ta laidorez horditürük, sarri tirano dateke etxean., kanpoan aldiz lehon, **kadenak** hautse dütüanaren pare dabila.

Irritsaz (63.o.) ... gizon güziak... sortzepeñetan dirateke güziak bardin, herioan dütü zehatzen **zeta** (esker onekoak) eta **ilhe brustoa** (eskerbeltzekoak).

Ezkontzaz (108.o.) Galerako kathenetan diradeanak zonbat urtez **kadenak** dütien herrestatüren dakie, bena senhar emazteek dütiela bereak sekülakoz ta herioak baizik ezttetzeakala ürre ez dakie.

Ber denboran ikhusten dügü bihotz franko **ünküdea** bezain gogorrik berzeren sofrantxer.

Aita amen eginbideaz (112.o.) Aitak, amak dirade beren haurren **miraila**.

Ezkontzaz (115.o.) aharrak düke ber azantza **martelüak ünkhüdean** düana.

Haurren eginbideaz (130.o.)Ezagützearen **khordak** hautse.

Hilen bitzaeraz (184.o.)Arima delakoz khorpitzaren **orkeian** (184.o.).

Gizonen eta emazteen arteko adiskidegoaz. (218. o.) (Adabakiak) Sobera zilo dütü gogamenak gizonak dereien ahal güziez **bethatxü** eman.

Axolgabeaz (150.o.) **Uztarria** dügü güziek lephoan.

Adiskidegoaz (218;o.) ... beharrak **orhatzen** dü adiskidegoa.

Hügüngoaz (224.o.) Izartaren gorrotoa nontik da jiten? Jendearen gogomenetik banaite (ezberdin) direlak diradealarik algarri beitirade joiten, **bolak** bezala **billartean**.

Lürre dük **ezkaratza**, zelüa **khanbera**, ekhia **sükaltea**.

KLITXEAK ETA ERRAN ZAHARRAK

(25.o.) Egiari zor düdan eginbideaz düt lan hau besarkatü.

(26.o.) Lizate elheen parrasta altistak (perlak) urdeen aitzinean ereitea.

(57.o.)Haurzaroko plegüak diradeala nekez barratzen.

(61.o.) ehün süge dütüke irentsi (cf Fr.).

(61.o.) (aitoren seme handi nahia) Pelegriek bezala egünkal egongia berritzen dü.

(63.o.) arima eskerniatzen.

(69.o.) lürrean peregri gisala izaitea.

(67.o.) eginbidearen herexak, ohorearen akületak.

(103.o.) Merezi züan olhoak ükhenik (cf. Fr. Il areçu une avoine.)

(119.o.) Bizioen langile.

(121.o.) Herioaren langile.

(149.o.) Odei güziak izpiritütik akasatu.

(168.o.) Bizitzearen podereak.

Izaria dagoela mündüan langilea bezala.

(199.o.) Alferkeria bizio güzieren ama (ik. Fr. Lat.eta beste).

(242.o.) Adagioak dio ainhera bakoitzak eztüala bere hegaletan primadera edo bedatsa ekharten (xf. Fr. une hirondelle ne fait pas le printemps).

(244.o.) Bada egiazki egün batzü ama hon berzeak amaizün diradeanak.

Orozbat gizona hartzaroan okertü bada haritza denean handitü da lehenago hautseren ezi ez plegatüren.

PERTSONIFIKATZEAK

Irritsaz (102.o.) **Irritsa** ta **Zekeina** harat gei (palaziorako gei) ziradean algarreki bidean harri ta igaiteko lankhei franko züen ükne, v bena eztelakoz zer nahi latzik, batak ta berzeak garhait elirokienik, azkenekoz ziradeala palaziora heldü.

(...)

Sarthü bezain sarri Irritsa, **Esperantza** emazte eder ta zaia kolore güziez egina bathü zereioan ta eskütik lothürük aitzinatzeaz enkaria egiten zereiolarik agertü zen **Engania**, zerbützüa eman züanari **Irritsa**, ta harek lankhei güzietan züan ezarri.

Lanak züanean nekatü **Zahartarzünari** zereion eskentü hantik aitzina **Ahalkeak** züan arrapatü ta bortxaz sarrerazi **Errabiaren** mithil, ordüan zitizün gütiak palaziotik kanpo urthiki, ez ürrezko borthatik bena atzületik. Gizon zahar gaixoa zen abiatü pikarrai (bilusik) larrüa hori tximaltürük, eskü batez **Ahalke** estaltzen, berzeaz lepoa tinkatzen ziolarik eta bidean **Dolüa** bathürük hareki nigarrez zen hurtü. Haren lagünak züalakoz limakhaldiz bortha zehe batez llabürtü, merezia züan olhoak ükhenik leze barnealat züen bizirik urthiki ta otsoer janerazi.

Ezkontzaz (107.o.) *Erromeria da Izkontzea (sic) hirur ostatü baizik bidean eztüana, lehena deitzen da plazer faltsüa, bigerrena garbaia, hirurgerrena lazzeria edo desesperazionea da batzen.*

EGIATEGIREN IDAZTANKERA

Metaforak

Nahiz ez diren, asko, euskal jatorrizkoak, sarritan, Egiategiren obran dira lehen aldikoz agertzen; ohargarria da animaliak ez direla hanbat agertzen tropo horietan, eta urrunago konparaketetan gehiengoa izanen dutela.

Hitzaurrean. (euskararen inkudetik) izenak arozta.

Baloreaz (49.o.) hegaltaz gaitzürü dütü erdiratzen.

Esperantza Hegaltaz dabila zonbaitentzat ta plomüz dütü zankoak bertzerentako.

(49.o.) Zilharrezko zübiak da lezeala züzen doana.

(62.o.) Ezagützea delakoz esnez eta eztiz egina.

(73. o.) (Egonezina.. jingeiaren egarriaz errerik.

(81.o.) Denbora galdüaz aberastarzün güziak dirade lasto.

(87.o.) Izterbegian, han dago sü bat argirik ez düana.

(107.o.) Ezkontza. Arabiako bipera txipiak dietetan habiak egiten, hartara doanak zer dagoen pean eztakielarik (sic) daude ausikirik.

(136.o.) ta gizona bata berzeari otso.

(150.o.) Uztarria dügü denek lephoan sortzepenetik.

(150.o.) bere egarri güzier beha dagoena.

(165.o.) Herioari ihesi.. esperantza bideetan eztüala bathüren.

(195. o.) Egiaren altharea lainoz eta odeiez estalirik zagoela.

(205.o.) Amorioa, mündüko süiaren buhadera.

(212.o.) Beharrak orhatzen adiskidegoa.

(222.o.) Bertze suerte bat bada heetan sügearen mihiarekin sortzen dena.

(266.o.) Izariak dereie eman rhinozerosaren adarra, hartzaren aztaparra, lehonaren ahoa, tigrearen haginak.

Hurbilketa metaforak.

(243.o.) Txoriak hegaltatik dütü bere indarra(k) erakhusten ta ahal deno gorago igaiten, gizona da ezin beno gorago igain nahi dena.

(89.o.)Izterbegiaz...ezta itzalik eztenean argirik, **ezetare** Jinkoaren dohainik bere izterbegia eztüanik.

Konparaketen egiteko .

Hiru bide nagusi ditu Egiategik baiezkoa, ezezkoa, eta gutxiengokoa gehiengoko konparatiboak.

Baiezkoetan hona hitz erabilienak

Bezala : bethi hüntza bezala

Bezain: gizon xüxenak direlako zozo xuriak **bezain** bekhant

Ber: ageri dela lürrean **ber** banatia izarreneta eoliten artean

Bardin: Thenpesten artean taula baten gainean itxasoak igaraitea meska-bürük bage edo mündüan min gabetarik bizitzea dirade **bardin**.

Denari: ezina da odolai ardoilla бүрдüinari dena.

Hala da: halako da senar-emazteen bizitzea.

Orozbat: orozbat lehona eritü edo zahartü denean.

Pare: arranoaren pare.

Sordeitz: basa arimalien **sordeitz**.

Üdüri: gaüeko txori berri gaitz ekarleer **üdüri** dirade.

Üdüri dü taon eullia.

Ezezkoan

Ez: **ezkirelako** arranogei sorthü.

Ez... pare: gorgonen begiak, sügeen hüstüek ta bazilikaren soak eztirade **pare**.

Aldiz: Abereak ez dü jaten ezetare edaten bere gosearen eta egarriaren doiala baizik, gizonak **aldiz** egar e'lríoena dü.

Ez bezala: ez dütü abereak bezala üztartzen.

Ezetare: ezta itzalik eztenean argirik ezetare Jinkoaren dohainik bere izterbegia eztüanik.

Konparatiboak

Beno... ago: alferrak dabilta hirietan üunhürriak beren habian **beno üsüago**.

Itxasoan uhin gahüntsüak jin zereitzon **beno lasterrago** .

Kortezainak ühaitz harriak **beno gogorrago** dirade.

Non... denik: **non** ezpeita mündüan gizonaren sordeitz **denik**.

ANIMALIA BATZUEZ OHARRAK

Lehenik eta behin, Egiategiren tropoetan abere gutxi dago, behin zezena, bestean ardia, behin axuria eta kito, ehizek “basa arimale” delakoek leku gehiago daukate. Badira agertzen ez diren ehizak, hala nola azeri eta beste mustelideo larru emaile txikiak. Hegaztien artean saiak, putreak ez dira aipatzen, txitxak behin, oilarrak ez. Aipatzenenik dituenak arranoa, lehoia, otsoa, sugeak dira. Ohar berdina egin da Asiako Idazleen obrak aztertuz. Ala Egiategik ez zituen inguruan ikusten zituen bizidunak tropogai erabili nahi? Egia da, nahiz menditarra izan harkaitzak eta leizeak baizik ez dituela aipatzen eta itsasoaren inguruko tropoak nasaikiago usatzen.

Lehoia. Egiategik lehoia maiz aipatzen du. Egia da lehoi gaiztoak, Maloleone delakoak Maule Zuberoako hiriburuari izena eman diola eta denbora berean armak: urrezko lehoi haserrea, zola gorri baten gainean. Lehoiari, Zuberoan, euskaraz olerki luzea egin zaio duela hamar urte. Horrez kanpo, ez du ez euskal mitologian, ez eta sinbolikan, ez eta ere literaturan lehoiak biderik egin. Lehoia beste nonbaiteko sinboloa da Esoporen edo beste baten alegia itzulien bitartez ezagutzen duguna. Alta, uste izateko da Egiategik bere irakurgaietik jaso zituela tropoak. Jakina lehoia ez da azken hogeï mila urteetan Euskal Herritik kurritu; errege Korteetan eta printzeen jauregi batzuetan ikusten ziren. Arranoa den bezala zeruko erregea, lehoia lurrekoa da. Indarraren, zaintzearen, eta poterearen ikurra da tenplu eta jauregi sarreretan harriz daude (berdin Madrileko Lege Biltzar aurrean). Lehoi bizia ezagutzen dituzten gizarteek badakite ez dela taldetan bizi, lehoiaren bakartasuna eta monarkoena erkatzen dituzte. Lehoiaren jainkotasuna ageri da Krishna, Buddha, Kristo, Mahomet eta beste profetak izengoitiz lehoiak direlako.

Otsoa . Euskaldunek XIX.menderaino ongi ezagutzen zuten otsoa eta oraindik badabil Bizkaia aldean. Egiategiren arrangura izan da otso kaltegarria, ezen argitaragabea den Biggerren libürüan idatzi zuen

“Aitoren seme bahiz, dakik zer den hire eginbidea (...)Adereza hadi non diren hartzak eta otsoak, saldoak akopilatzen dütienak. Habil’hoa oihanetara basa arimal heer gerla egitera ta ohore biltzera” (*Bekhaizgoaz*, 234.o.)

Gero, luzaz aipatzen du nola Tourainan ikusi duen Aitoren seme miresgarria, 70. urteekin jauregian goxoki egon ordez, gau eta egun, zaldiz oihanetan ibiltzen otso ehizean bere probintziako laborarien probetxurako.

Otsoa taldean dabil eta azaletik begiratu diotenek esaten dute elkar jaten dutela; hortik gizon gaiztoaren, herri gaiztoaren irudia. Gizona otsoaren pare esaten denean otsoari iraina egiten zaio, ezen lauzangoko otsoa zorionez ezpaita gizonaren pare, ezpaita gai, bizangokoak bezala, sasi-holokaustoz arraza baten, herri baten erhaiteko.

Bestalde otsoa ez da beti gaiztoa bezala ikusia ; beste ehizen moduan bere alde ona du, ezen Erromatarrek ohoratu badute. Euskaldun zahar askok izen eta deitura bezala Otsoa, Otsanda hartu zuten, eta hori erromatarren garaitik, ez dakigularik zuzen, zergatik:otsoa den argiaren irudia? gogamenaren lasterra? ehiza bizi iraunkorrekoa?

Arranoa. Hau da Egiategik, usu aipatzen duena. Ez gara ibiliko iruzkintzen noiz hasi zen arranoa jainko edo jainko mezulari bezala agertzen ezen erlijio gehienek berentzat hartu dute, Kristauek Jon Done Joanes eta Kristo arranotu dituzte, baina aintzinetik Zeusen mezularia zen, eguzkiaren sinboloa, eguzkiari begiak zabalik begiratzen diolako. Potere ikur bezala Persian erabili zen lehenik: Akemeniden ikurrina urrezko arranoa zen hegalak zabalik. Asian eta Ameriketantamenaren, artasunaren, erregetasunaren, jainkotasunaren ezaugarriak ditu.

Euskal Herrian sinbolo horrek bere zaintxoak sartu ditu, hegazti hori gure mendietan, ikus daitekeelako. Euskaldun zaharrentzat badirudi, izenak salatzen duen bezala, arranoa, arra txipia zela, artasunaren sinboloa, gainera errespetuz XVIII. Mendeko testu batean ez da esaten *arranoaren urrixa, *arranoaren anderea* baizik, halaber orain ere Baztanen *anndera*.

Jakina Egiategik, sarritan, errepikatzen duen gisa aitoren semeentzat idazten du eta bereziki, beren liburutegiarekin, lagundu dioten Belatarrentzat. Beraz noble gazteei arranoa adibidea da, apaltzen ez dena, umeak ongi zaintzen dituen eta abar. Egiategik aita amei hezkuntza eredu bezala eskaintzen du, baita indarrarena “arranoaren aztaparrak”. Herri kantuak ez al dio:

*Arranoak bortüetan gora dabiltza hegaletan
Ni ere halako ordüan anderekin nintzanean.*

Arranoak Euskal Herriko heraldikan lehoiak baino arrakasta gehiago eduki du, ezen Nafarroako kateak izan baino lehen nafar erregeen armarriz bi buruetako arranoa. Geroztik arrano beltz hori Euskadi eta Askatasunekoek beren sinbolotzat hartu dute.

Arranoa beste animalia-sinboloen alderantziz ez da ehizatzen. Euskaldun zaharrentzat behintzat putrea bezala sakratua zen, zerutarra delako ote? Arranoa hiltzen zuenak zoritxarra bere buru gainera biltzen zuen.

Txoriak eta hegalta Bitxiki txoria maitearen sinboloa delarik XVIII. mendeko herri kantuetan, Egiategik ez du amodioaz mintzatzean aipatzen. Txoriak harentzat egan egileak, hegaltariak dira eta hiru aldiz goratasunaren, handitasunaren irudia da eta behin indarrarena “txoriak hegaltatik dü bere indarra erakhusten “.

Suge Jendeen gaiztakeria sugerearen pozoiarekin erkatzen da, baina halere sugea ematen bere arrautzak salbatzeko sura bere burua botatzen duen animalia eredia.

Zomorroak Aspergarri eta erdeinagarri dira zomorroak, taon euliak, arbiskak, har txarrak edo ugaritasunaren irudi dirade hala nola alferrak edo esperantzadunak hirietan eta Kortean dabiltzan txindurrien pare.

Urak, ibaiak, itsasoa

Sinbolikan ura geldotasunaren, emetasunaren sinboloa dela, baina Egiategirentzat higitzearen, mugimenduaren irudia. Itsasoan, kasik beti, ekaitza eta uhinak aipatzen dira bizitzaren eta jendearen gorabeheren aipatzeko. Euskal idazle zaharren ikuspegia badu, alegia itsasoa kalte egile dela, ezin dela itsasoan ibili ekaitzik gabe.

Errekak eta iturriak eta ühaitzak (ibaiak) aipatzen ditu, denboraren eta jendearen bizitzaren irudi gisa. Iturbegia jatorria da, familia, ur lasterra bizitza eta ur guztiak itsasoan galtzen.

Haizea.

Haizea berriz higitze eroaren irudia da, baina ere jende handiek itsaso uren gorabeheretan bezala jendea altxatzen, edo etsaiak hegoaren pare handienak hausten, Haizea ere moda da jende haize-buru edo haize orratzak higiarazten dituen.

Sua.

Egiategirentzat gehiegi guztien konparaketa edo metafora da sua, baina su onak (maitasuna) ere badira berotzen dutenak, baita batzuk erretzen (infernukoa), eta baten batek hotza banatzen (bihotz gogorra).

Lurra.

Lohia gaitzesgarria bada Egiategirentzat harkaitzak, arrokkak iraunkortasuna, leialtasuna ere adierazten du. Lurra darabil gehienbat globoa adierazteko orain zuberotarrek lürzabala diotena.

Eguzkia.

Eguzkia baita argia eta egia, haren kontrakoak hodeiak eta itzalak dirade agertzen irudietan.

Gehienetan Egiategiren irudiak ez dira asmatuak, batzuk klitxe hutsak dira, besteak bere gustukoak. Gainera, usu, Aitoren semeak gogoan hautatzen zituen tropoak. Oihenarten atsotitzen oihartzuna badago irudi batzuetan. Bakanki, antza denez, idazten zituen tropoetan sinbolika aditzen zuen. Mendia hitz bezala ez da agertzen, aldiz itsaso hitza argiki darabil. Gorago ikusi dugu nola abereak baino gehiago darabiltzala ehizak eta horien artean ezagutzen zituen handienak. Ikerketa labur honekin ezin dezakegu erran Egiategiren tropoek euskal sinesteez zerbait adierazten dutela, ezen hartza ehiza mitikoa bi bider du aipatzen, putreaz, saiaz ez du deusik erraten ez eta gau-ainaraz. Akerra ez badu bere irudietan sartzen baliteke usainagatik edo berdin deabruaren biziduna delako.

Egiategiren tropo eta adibide erabilerak filosofia liburu zaharretan asko aurkitzen zen, baina gaur ere euskaldun idazleek europar filosofia berriekin batean idatz tankera tropodun berdina usatzen dute, hala nola Gil Bera edo Roman Garate eta idazle guztiei ez zaigu aiher gure lumak tropoz koloretzea.